

## **GARAPENERAKO ELKARKIDETZA PROIEKTUAK**

Herrialde ezberdinetako pertsona eta elkarteekin lan egiten dugu, gizartearen garapen osoan lagunduz.

Martxan dauden proiektuak:

### **1. La enseñanza universal, nuestro compromiso en el Norte y en el Sur: 2011**

**Tokiko elkarteak:**

Fé y Alegría Perú.

**Finantzaketa erakundea:**

Eibarko Udala, Peruko Hezkuntza Ministerioa, Fé y Alegría Perú, Aldatze Ikastetxea eta EGOAIZIA.

**Iraupena:**

2011

**Aurrekontua**

33.149.77€

“La enseñanza Universal, nuestro compromiso en el Norte y en el Sur” proiektua Eibarko Udala eta ALDATZEren laguntzaren bidez sortu zen. Bere helburua bidezko eta kalitatezko Garapenerako Hezkuntza bat jasotzeko eskubidean datza. Tupac Amaru (Pisco) barrutian ematen den behar honen erantzun gisa, 2007ko abuztuaren 15ean gertaturiko lurrikararen ondoren hareagotu zena, Fé y Alegría Peruk eskola "Fe y Alegría 77" eskola ireki zuen. Kaltetutako sendien, hauetariko asko lurrikararen ondorioz lekualdatuak, seme-alabei beharrezko azpiegiturekin kalitatezko hezkuntza eskaintzeko asmoz.

## **2. Fortalecimiento de la gestión concertada del desarrollo del distrito de Santa Catalina de Mossa 2011.**

### **Tokiko elkarteak:**

CIPCA

### **Finantzaketa erakundea:**

Ayuntamiento de Eibar eta Santa Catalina de Mossako barrutia.

### **Iraupena:**

2011

### **Aurrekontua:**

116.188,64€

Proiektu honek Eibarko Udalaren diru-laguntza jaso du eta lehendabiziko helburua herri gestio eta herri gobernagarritasun demokratikoa sendotzea da.

Santa Catalina de Mossa barrutian elkarten hauskortasunak beste elkarte batzueganako harremanak zailtzen ditu lehentasuna duten proiektuak zehazteko eta aurrera eramateko. Santa Catalina de Mossako erakunde publikoek interesa azaldu dute herri gestio eta gerri gobernagarritasun demokratikoa sustatzeko. Hots, herri partaidetza sustatzeko. Hala ere, formazio lekurik (kapazitazio eta laguntza) ez egoteak gizarte zibila kontzientziatzea zailtzen du. Egoera honek arazo bat dakar, garapenerako proiektuek duten gestio kontzertatu ahula. Esaterako, zuzen ez dabilzaten erakundeak, Consejo de Coordinación Local bezala, eta elkarlanean ez dabilzaten beste hainbat elkarte. Horrela, erakunde publikoek partaidetzan oinarrituriko aurrekontuak eskaintzean elkarrekin ez dituzte koordinaturiko lehentasunik zehazten.

Proiektu honek proposatzen dituen konponbideak honako hauek dira:

- A) Elkarte ezberdinetako agintariei kapazitazio eta aholkularitza euren tokian tokiko lehentasunak identifikatu eta erantzun aproposa ematearren.
- B) Autoritate eta herri teknikoei kapazitazio eta aholkularitza konzertazio eremu estrategikoak demokratikoki kudeatzeko.
- C) Administrazio publiko eta elkarten arteko konzertazio eremuak sortzea hezkuntza, nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako proiektuak identifikatu, debatitu eta bultzatzeko helburuarekin.
- D) Aurrekontu partehartzailearen Zaintza Komisioen kaptazio eta aholkularitza.
- E) Eibarko Udala eta Santa Catalina de Mossa barrutiari esker jasotako finantziarioarekin lehentasuna duten inbertsioak egin.

### **3. Fortalecimiento de Organizaciones Sociales y Productivas y Gobiernos Locales para la implementación de prioridades concertadas del desarrollo local. Salitral eta Buenos Aire-eko barrutietan, Peru.**

**Tokiko elkarteak:**

CIPCA

**Finantzaketa erakundea:**

Diputación Foral de Guipúzcoa y CIPCA

**Iraupena:**

2010-2012

**Aurrekontua:**

130.387,00€

Proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du eta 2009-2010 urteetan han bertan egindako lanaren ondorioz sortu da. Proiektu horren bidez partehartze eremuak sortu ziren arren arazo nagusi bat topatu zen. Arazo hori elkarteen ordezkari ziren gizon emakumeek hitzartutako proiektuak kudeatzeko eragite eta mobilizazio ahalmen urria zuten. Honen arrazoia tokiko elkarteek lehentasunak kudeatzeko duten ahalmen urrian eta administrazioaren eraginkortasun eza dirta.

Horregatik proiektu honek honako puntu hauek zehazten ditu:

- A) Hitzartutako proiektuak ezartzeko elkarteen ordezkariari beharrezkoa den kapazitatea eskaintzea.
- B) Ordezkari horien arteko harreman esparruak sustatu, lehentasunak identifikatu eta euren kudeaketarako aholkularitza eman.
- C) Administrazio eta udal teknikarien kapazitatea helburuetara zuzendutako aurrekontua ezartzeko.
- D) Herri administrazioen kontuen ikuskaritza.

#### **4. Fortalecimiento de organizaciones sociales y gobiernos locales y su articulación a los procesos de desarrollo local en la Mancomunidad de Alto Piura.**

**Tokiko erakundea:**

CIPCA.

**Finantzaketa erakundeak:**

Eusko Jaurlaritza, CIPCA eta EGOAIZIA.

**Iraupena:**

2011-2012

**Aurrekontua:**

312.130,37€

Proiektu honek Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso du eta bere helburua herri mailako deszentralizazioa sendotzea da, gizarte zibilaren parte hartze positibo eta arduratua sustatuz. Herri administrazioarekin elkarrizketa demokratikoaren bidez, herri garapen inklusibo eta jasangarria lortzeko. Proiektuak nekazal inguruko elkarteetako agintarien ahalmenak garatzen ditu, beraien eskaerak era apropos batean defendatu ditzaten eta herri aurrekontuan beharrezko lekua edukitzeko, baita beste erakunde batzuekin elkarrekin lan egiteko.

Estrategia honek lehenengo urtean elkarteen sendotzean lan egiten du eta hauen agintarien ahalmenen garapenean bereziki inguruko beste elkarte batzuekin elkar lanean oinarrituz barrutiko lehentasun partekatuak ezartzeko garaian.

Era berean, sektore publiko eta pribatuaren arteko hitzarmenerako esparruak sortu eta indartuko dira (CCL, Herri Komisioak). Elkarteen ordezkariak lehentasunak negoziatu eta zehazteko aukera izan dezaten.

Bigarren urtean elkarteen ordezkariak euren barruetietako lehentasunak kudeatuak eta herri administrazioaren aldetik kontuan hartuak izan daitezzen izateko lan egingo da. Aldi berean, sorturiko hitzarmenerako esparru (CCL, Herri Komisioak) eta herri gobernuen arteko adostasuna bilatuko da herri eta mankomunitateko agenda bat sortzeko eta euren beharrak aurrekontu parte hartzailean lekua izan dezaten.